

## Ostren heriotza-kausak eta prebentzio- neurriak - EFSA 2015

EFSA (<http://wikia.elika.eus/index.php/EFSA>)ko Animalien Osasunaren eta Ongizatearen Panelak ostren heriotza masiboen areagotzeari buruzko zientzia-iritzi bat argitaratu du. Horretan, **OsHV-1 eta *Vibrio aestuarianus* birusen eta heriotza-tasa horren arteko harremana ikertzen da**; halaber, **prebentzio-neurrien eraginkortasuna eta gaixotasun horien kontrola** aztertzen dira.

2008. urtetik, Pazifikoko ostren (*Crassostrea gigas*) heriotza masiboaren patro berri bat aurkitu da Frantzia eta Europako beste herrialde batzuetan. Antzeko agerraldiak izan ziren Australian eta Zeelanda Berrian 2010ean eta 2011n. Egindako azterlanek agerian utzi dute **OsHV-1 microvar birusa lotuta dagoela ostren heriotza-tasaren areagotzearekin**, uraren tenperatura 16 ° C-koa baino handiagoa denean. Alabaina, ezin izan da kausazko harremanik ezarri *Vibrio aestuarianus* birusaren eta ostren heriotza-tasaren artean.

Europan, OsHV-1 gabeko eremu gutxi batzuk baino ez daude; hori dela eta, uste da ostrak murrizketarik gabe mugitzeak birus hori zabaltzeko arrisku handia dakarrela. Nolanahi ere, kontuan harturik *C. gigas* espeziearen populazio basatiek ere birusa zabaltzen dutela, **mugimendu-murrizketek**, berez, ez dute eragozten OsHV-1 birusa sartzea alde aurretik infektatu gabeko eremuetan.

Bibalboei eta beste itsas espezie batzuei agente infekziosoak transmititzeko beste bide bat araztegiatan tratatu gabeko itsasoko ura deskargatzea da. Horren eraginez, behar-beharrezkoa da **instalazioetan eta araztegiatan itsasoko uraren efluentek modu eraginkorrean desinfektatzea**, agente infekziosoak transmititzeko arriskua minimizatze aldera. Kloroa, ozonoa, iodofoeroak, beroa eta 254 nm-ko irradiazio ultramorea tratamendu eraginkorrak dira hala OsHV-1 nola *Vibrio aestuarianus* birusak inaktibatzeke.

OsHV-1 microvar birusa transmititzeko arriskua minimizatzeke modurik eraginkorrenetako bat da **jatorrian osasun-egoera bermatzea**, eta hori **OsHV-1 birusik gabeko eremuetako haztegiatiko haziak eskuratuta** baino ezin da lortu. Alde horretatik, kontuan hartu behar da diagnosi-metodoek infekzio latentea atzemateko duten edo eramaile asintomatikoek dieten sentikortasuna; izan ere, hori faktore mugatzailea da gaixotasunen kontrolerako prozedura egokiak garatzeko bidean.

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .  
EFSAren irizpena (<http://www.efsa.europa.eu/en/efsajournal/pub/4122.htm>)  
[berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus) (<mailto:berri@elika.eus>)